

SANFERMINETAKO KONTZERTUAK

Sarasate eta Iruña

1856an, Parisko Kontserbatorioan ikasten hasi zen urte berean, Sarasate Iruñera etorri zen Aldapako San Fermin jaietarako. 1872, 1876 eta 1877. urteetako udetan itzuli zen. 1879tik aurrera eta hil zen urtea arte, Iruñearekin zuen hitzordua ezin saihestuzkoa bihurtu zen: 1884 eta 1889. urteetan izan ezik, urtero sanferminetan aritu zen, Gaztelu plazako Antzoki Nagusian antolatutako kontzertuetan, 1903tik aurrera Gayarre Antzokia deituko zena, Santa Cecilia orkestrarekin. Orkestra horrek lehen kontzertu denboraldia 1878n eman zuen, eta elkarte moduan, "ofizialki", 1880an eratu zen. Joaquín Maya izan zen sortzailea. Mayak musika eskolan, irakasleen orkestra bat zuzentzen zuen, eta bai Nuevo Casinon ere. Baina Sarasatek berak babestu eta bultzatu zuen. Berak, **Otto Goldschmidtekin** batera, sanferminetako goizeko kontzertuetako programak diseinatzen zituen eta musikari gombidatuak eramateaz eta orkestrako laguntzaileak eskatzeaz arduratzen zen. Gehienetan, Madrilgo musikariak izaten ziren. Bereziki aipatzekoak dira 1882ko San Fermin jaietako kontzertuak. Izan ere, **Sarasatek, Gayarrek, Arrietak, Zabalzak, Guelbenzuk, Larreglak, Mayak eta Chapik** parte hartu zuten. Perez Galdosek honako hitz hauek idatzi zituen belaunaldi horren gainean: "Pablo Sarasate nafarra da. Lehenago ere esana dut musikari espainol guztiak nafarrak direla" (*Arte y crítica*, 1923).

Azkeneko kontzertuak hil baino bi hilabete lehenago eman zituen. Horietan honako musikari hauen laguntza izan zuen: **Ricardo Villa** Santa Cecilia orkestra zuzentzen aritu zen; **Berthe Marx**, pianoa jotzen; **Remigio Múgica**, Iruñeko Orfeoa zuzentzen; eta **Otto**

Goldschmidt, pianoa jotzen Sarasateri laguntzeko. Horrez gain, beste biolinista iruindar batek, **Santiago Vengoecheak**, *Jota Navarra* jo zuen, Sarasatek Nafarroako Foru Diputazioari eskaini ziona, eta orkestrak, orfeoarekin batera, *Himno a Sarasate* izeneko kanta eskaini zion. Azken kanta hori Villak ondu zuen, Alfontso XII.aren Gurutze Handia eman behar ziotela eta. Zerrenda luze bateko azken ohore-domina izan zen hori.

Sarasate eta zezenak
Sarasate zezenzale amorratua zen –Alcarreño zezenketariari eskainitako pasodoble bat idatzi zuen– eta bere ohol-tza izaten zuen Iruñeko zezen-plazan sanferminetan. Musika apaingarriak jarri ohi ziren bertan. Zenbait alditan, gainera, zezenketaren buru izaten zen.

Sarasate eta hari eskainitako monumentuak
1897an Sarasate Museoa sortu zen. Izan ere, biolinistak zituen balio handiko objektuen zati bat eman zuen eta horrela sortu zen museoa. Bilduma hori handitzen joan zen hil zen arte. 1900ean, Iruñeko Udalak Sarasate hiriko seme kutun izendatzea erabaki zuen, eta 1902an gauzatu zen hori. 1903an, gainera, Udalak hiriko pasealeku garrantzitsuena eskaini zion musikariari eta, izena aldatuta, Sarasate bulebarra izan zen ordutik aurrera. Biolinista hil ondoren, 1918an Udalak Sarasateri eskainitako monumentu bat jaso zuen Taconera parkean. Azkenik, monumentua korroazten zuen bustoa kontserbatorio berriko aurrealdera (Agoitz kalean dago egun) eraman zuten eta kontserbatorioari bere izena jarri zioten. 1959an beste monumentu bat inauguratu zuten, Media Luna parkean.

Santa Zezilia Orkestra; Pilar Michelena harpa jotzailea, Pablo Sarasate, Ricardo Villa zuzendaria, eta Santa Zezilia Elkarteko presidentea, Alberto Huarte, lehenengo lerroan ageri dira.



ARGAZKIA EMILIO PLEGO. Iruña



MUSEO ARETOAK IZAN DITUEN EGOITZAK

Pablo Sarasateren ondarea

1893ko testamentuan, Sarasatek Iruñeko Udalarari objektu anitz utzi zizkion "en toute propriété": bere artelan bilduma, sariak, makilak... eta bere biolin batzuk, haien artean Vuillaume eta Gand & Bernardel izenekoak. 1894 eta 1897 artean, biolin-jotzaileak hainbat objektu eman zizkion Udalarari, zilarrezko koroak eta bitxi batzuk, esaterako. 1908an hil ondoren, Iruñeko Udalak museo areto bat egokitu zuen udaletxe zaharreko azken solairuan. Bertan jarri zuten ondarea, Otto Goldschmidtek –musikariaren administraria eta laguna– eginiko ondaren zerranda oinarri harturik. Eraikin barrokoa eraitsi zenez, 1951n kendu behar izan zen museoa. Hamalau urteren buruan, Agoitz kaleko Pablo Sarasate Kontserbatorioioko behe-

Goian, Iruñeko Udaletxean jarri zen lehenengo museo aretoa; azpian, ezkerrean, ondarearen egoitza, Agoitz kaleko Pablo Sarasate Kontserbatorioan zegoena; eskuinaldean, San Joan bataiatzailea Apaizgaitegi zaharrean zegoen museo aretoa.

Behean, Sarasate Parisen, Malesherbes 5. zenbakian zuen pisuan; eskuinaldean, egongela, Biarrizko Villa Navarra izeneko etxean.



ko solairuan jarri zen ondarea, 1965ean, kontserbatorioa inauguratu zen urtean. Han egon zen 1977a arte. Hamalau urte iragan ziren museo areto berria inauguratu arte. Areto hau kokaturik zegoen San Joan bataiatzailea Apaiztegi zaharreko kaperan, Merkatuko kalean, Udal Artxibategia dagoen egoitzan. Han egon zen 1991tik 2008 arte. Orduantxe egokitu zen egungo erakusketaretoa, zaharberritu zen Kondestablearen Jauregian, Kale Nagusian.

TESTAMENTUA

"Iruñeko Udalarari honako hauek uzten dizkiet oinordetzan: nire erlojuak, gorbata orratzak, eraztunak, diamanteak dituzten bitxiak, sariak, koroak, palmak, agiriak, brontzezko objektuak, koadroak, bustoak eta oroigarriak. Bilduma hau beira-arasa berezi batean erakutsi beharko da. Bertan jarri beharko da objektu bakoitzaren jatorria. Halaber, oinordetzan uzten dizkiet nire bi biolinak, Vuillaume eta Gand izenekoak (azken hau Parisko Kontserbatorioan lehen sari gisa eman zidaten), baita nire arkuak ere... Biolin hauek erakutsiko dira artista-oroigarriak gordetzen dituen beira-arasa horretan, hautsetik eta hezetasunetik behar bezala babesturik. Aipatu Udalarari oinordetzan uzten dizkiet Parisko nire gelan dauden mota guztietako altzariak eta altzari objektuak... Oroigarriak eta musika tresnak dituen bilduma guztia, baita altzari guztiak ere, gela berezi batean jarri beharko dira. Gelak nire izena izan beharko du eta herritarrek inolako arazorik gabe bisitatu ahalko dute." (*Pablo Sarasateren testamentutik hartuta. Parisen egin zen 1893ko irailaren 28an*).

PABLO SARASATE ERAKUSKETA

Kondestablearen Jauregia
Kale Nagusia, 2. 31001 Iruña

ORDUTEGIA

Asteartetik larunbatera: 11:00 - 14:00 eta 18:00 - 21:00
Igandean: 11:00 - 14:00
Astlehenean: Itxita



ERAKUSKETA

Pablo Sarasate

Iruña 1844 - Biarriz 1908

